

ESKUBALOIA

Estrainekeo aldiz Errekopako txapelaren bila Elgorriaga Bidasoa gaur Artalekun

Etorrerarako bospasei goleko abantaila lortu asmo dute irundarrek

Arratsaldeko sei t'erdietatik aurrera, Elgorriaga Bidasoa bere historiaren kapitulu berria idazten hasiko da Artaleku kiroldegian. Irundarrek, TSV Milbertshofen talde alemaniarren aurka jokatu behar duten joaneko partiduan bospasei goleko abantaila lortu nahi dute.

DONOSTIA


Elgorriaga Bidasoak eta TSV Milbertshofe talde alemaniarrek Errekopako finaleko lehen partidua jokatu dute gaur Artaleku kiroldegian. Juantxo Villarrealen jokalariek Alemanian jokatu den partidurako «lasaitasuna» emango dien emaitza lortu asmo dute gaur Irunen.

TSV Milbertshofe talde alemaniarra Copes-Hermes Den Haag (Holanda), Saab Linkoping (Suedia) eta Bramac Veszprem (Hungria) taldeak kanporatuta dator finalera.

ALEMANIAKO LIGAN GAIZKI Andras Pecsénye hungariarrak zuzentzen duen taldearentzat Errekopako Txapelketa da aukera bakarra. Ligan oso gaizki daude sailkatuta eta datorren urtean Europan egoteko ezinbestekoa dute final hau irabaztea.

Alemaniarrek defentsa gogorra egiten dute. Normalean 6-0 sistema erabiltzen dute, nahiz eta batzuetan 5-1 edo defentsa mixtoa erabili. Hendrik Ochel (10 zenbakia) gaztea da Milbertshofe taldeko jokalaririk garrantzitsuena. Hogeitabi urteko gazte honek jadanik hogeitabi aldiz jokatu du alemaniako selekzioarekin eta batez ere bere indarra eta jaurtiketa nabarmendu behar dira. Ochelekin batera Frank Lohr eta Rudiger Nietzel dira lehen lerroko jokalaririk arriskutsuenak.

Bigarren lerroan Sinka hungariarra eta Ludke eta Sham extremoak



Defentsan lan handia egin beharko dute Elgorriaga Bidasoako jokalariek.

ANDER GILLENEA

dira gizonik indartsuenak. Orain arte aipatu ditugun lau gizon hauek dira Alemaniako taldeko goleatzaile nagusiak. Lau hauekin batera ezin aipatu gabe utzi Jan Holpert atezainaren lana. Hogeitabi urte besterik ez dituen arren Holpert Alemaniako selekzioko hirugarren atezaina da eta Milbertshofe taldeko funtsezko jokalaria.

DENBORALDIKO UNE GARRANTZITSUENA

Azken orduko ezusterik gertatzen ez baldin bada Juantxo Villarrealen jokalaririk guztiak ditu «prest» gaurko partidurako. Txus Barbon eta Josu Olalla ez daude topera baina gaurko partidua duen garrantzia kontutan izanik Villarrealen jokalaririk guztiak erabiliko ditu. Elgorriagarentzat denboraldiko unerik garrantzitsuena heldu da, eta azken partiduetako hutsuneak irundarrek ohizkoa duten indarrarekin beteko dute.

Gislason: «Alemaniarrek joko gogorra dute defentsan»

M.A. / DONOSTIA

Irunera etorri aurretik bertako Ligan jokatzeko Alfred Gislasonen sobera ezagutzen du Alemaniako eskubaloia. Islandiarrak baikortasunez ikusten du gaurko partidua, «oso zaila izango da, irabazteaz gain ahal den abantaila gehiena lortu behar bait dugu». Munchenen jokatu den etorrerako partidura lasaitasunez joateko bospasei goleko abantaila nahiko luke Gislasonek, «ezin esan daiteke horrelako abantaila erabakiorra izango litzatekeenik, baina bai ordea pausu handi bat».

Alemaniar talde atezainaren lanean eta defentsa indartsuan oinarritzen da Gislasonek dioenez. Hala ere gaintzeko gai izango direla uste du, «defentsan dakigun bezala aritzen bagara min handia egingo diegu». Alemaniarren erasoak moztu eta kontraerasoan irten behar dutela uste du islandiarrak.

Liga Txapelketako azken neurketetan irundarrek «behera» egin dute jokoan, «txapelketa oso luzea da eta ezinezkoa da partidua guztietan maila berdina mantentzea. Hala ere dugun animoarekin neke fisikoa gaintzeko gai izango garela uste dut».

ZALETUEN LAGUNTZA EZINBESTEKOA

Joaneko partidua etxean jokatzeko ez du gustoko Gislasonek, baina hala ere baikor azaltzen da, «desabantaila handia da, baina horrela egokitu da eta ez dago ezer egiterik». Zaletuen laguntza oso ga-



Alfred Gislason. ANDER GILLENEA

rrantzistua da islandiarraren ustez, «finala irabazteko zaletuen laguntza ezinbestekoa da, bai guretzat eta bai alemaniarrek urduri jartzeko».

Irungo jarraitzaileen animoak alemaniarrek urduri jartzeko hainakoak izango direla uste du Alfredek, baina ez du uste beraiek Munchenen horrelakorik aurkituko dutenik, «Alemaniako zaletuak oso hotzak dira. Hala ere berdin zait, giro beroak asko animatzen bait nau». Ideia hau adierazteko Alberician Tekaren aurkako partiduan jasan behar izan zuten «giroa» gogoratzen du, «horrek bultzatzen zaitu».

Teka-Mepamsa, ia ezinezkoa antonianoentzat

A.B. / IRUNEA

Mepamsak benetan partidu zaila izango du bihar Tekaren aurka, Santanderreko La Albericia kiroldegian. Izan ere munduko talderik hobereenetakoa izango bait dute aurrean nafarrek, nahiz eta aurtengo denboraldian zorte handirik ez izan. Zupo Ekisossainen taldea, gaur goizeko bederatzietan zen Iruñetik irtetekoa Santanderren bertan bazkaltzeko.

Giro ona da Iruñeko taldearen baitan, eta partidu ia ezinezkoa dela jakinda, joko ona egitea dute helbururik nagusiena. Entrenatzaileak ez du aparteko markaketa edo jokalaririk prestatu partidu honetarako, eta Cacaolat eta Cajamadriden aurrean egin zuten joko ona errepikatu nahi du Zupok.

TEKAREN DENBORALDI ESKASA

Santanderreko taldeak nahiko denboraldi eskasa egin du aurretik, hasiera bateko aurrikuspenei erreparatzen badiugu behintzat. Europako talderik hobereenetakoa, aurrekontu izugarria, maila goreneko izenak, baina, azkenean, ez du oraingoz ezer lortu, eta Ligan ere ez ditu gauzak ongiegi. Alberto Martin Mepamsako jokalariren ustez, honen arrazoia diruaren bidez egindako talde izatean egon liteke, «jokalaririk guztien arteko harremanak oso desberdinak bait dira. Hori haien aurka jokatzeko ere naharia da. Tekan bakoitzak nolabait bere aldetik jokatu du. Barcelona edo Elgorriaga bezalako taldeetan, ordea, zozker gehiago somatzen da, giro ona». Liga txapelketa irabazteko, honen favoritoa Barcelona da, «bere bi atzelariak apartekoak bait dira. Hemen haiek irabazi zuten partidua». Pronostikoekin jarraituz, duda-mudak ditu Albertok Elgorriagaren paperarekin. «Bere atzerritarrek oso onak izan arren, partidu gehiegi jokatu ari dira, eta orain oso mentalizatuta izango dira Errekoparekin. Ez dakit...».

ELGORRIAGAREN EXENPLU HURBILA

Mepamsa San Antoniok dagoeneko datorren denboraldian ditu gogoak, eta bigarren laguntzailea hurbil dagoen une honetan, taldea indartzetik datoz asmoak. Honek, Albertoren ustez, ez luke San Antoniok ere kanpotarrez betetako taldea bihurtu behar, «orain dagoen giroa aparta delako, eta horren bidez egin bait dugu egin duguna. Indartu egin behar da taldea, ados, baina etxeokoa mantenduz».

TSV Milbertshofen

Jokalaria	Postua	Adina	Selekzioan
1 Jan Holpert	Atezaina	22	20 A
2 Lars-Henrik Walther	Ezker hegala	23	
3 Budiger Neitzel	Ezker hegala	28	124 A
4 Anton Stangl	Ezker extremo	27	10 A
5 Robert Wagner	Pibota		
6 Johann Sinka	Ezker hegala	26	15 j (Hun)
7 Jens Lüdtker	Eskuin extremo	20	6 j
8 Klaus-Peter Heimerl	Eskuin extremo		
9 Michael Sahn	Ezker extremo	29	
10 Hendrik Ochel	Eskuin hegala	22	20 A
11 Stephan Kempinger	Pibota	20	
12 Stefan Kellner	Atezaina	29	2 A
13 Stephan Schlegel	Pibota	21	
14 Frank Lohr	Zentrala	25	38 A
Andreas Rastner	Ezker extremo	22	
Michael Redl	Atezaina	33	4 A
Robert Hofmann	Eskuin extremo	22	
Andras Pecsénye	Entrenatzailea		
Erhard Wunderlich	Talde arduraduna		